

Hutsik geratu da 2013-2014 ikasturterako Doktoretza aurreko beka

2013/10/07

Fakultateko Doktorego Batzordeak erabaki du hutsik uztea Huheziko 2013-2014 ikasturteko Doktoretza aurreko beken lehiaketa. Hutsik uztearen arrazoia izan da jasotako eskaerek ez zituztela betetzen oinarrien baldintza guztiak, bereziki, hautagaiak aurkeztuta eta onartuta egotea Eusko Jaurlaritzak ateratako ikertzaileak prestatzeko 2013-2014 ikasturteko beken deialdian.

Bestalde, ebaluazio batzordeak onartu egin du Nekane Miranda Franco eta Aroa Murciano Eizaguirre doktoregaiek egindako berritze-eskaera, eta, oraingo ikasturtean ere euren jarduna diruz laguntzea.

(2013-2014 ikasturteko Doktoretza aurreko beken ebazpena).

